



OSASUN SAILA

Osasun Sailburuordetza
Osasun Publikoaren eta Adikzioen
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD

Viceconsejería de Sanidad
Dirección de Salud Pública y
Adicciones

Informazioa gehigarria toxina estafilokozikoaren intoxikazioagatik Espainiatik datozen oliba-oliotan frijitutako onddoetan (Boletus edulis).

Arriskua: toxina estafilokozikoa

Oliba-oliotan frijitutako onddoetan (Boletus edulis) toxina estafilokozikoa egoteagatik alertaren barruan, Informazioa Azkar Trukatzeako Sistema Koordinatuaren (SCIRI) bidez jakinarazitako jardueren ondorioz, kutsadurak eragin ditzakeen produktu beraren marken zerrenda zabaldu da.

Merkaturatzea:

Honako hauek dira inplikaturako produktu berrien datuak:

- Produktuen izena: **onddo frijituak oliba-oliotan**
- Marken izenak: **Emperatriz, Lierni, Huerta Real, Boletus eta Radvi**
- Produktuaren itxura: kristalezko ontzia
- Kontsumo lehenetsiaren data: 2026/02/02
- Lote zenbakia: 02/02/2021
- Unitatearen pisua: 180 gr
- Temperatura: girokoa

Jarduerak:

Informazio hori Elikagaien Alerta Sarera eraman da Informazioa Azkar Trukatzeako Sistema Koordinatuaren (SCIRI) bidez, autonomia-erkidegoei helarazteko, eragindako produktua merkaturatze-kanaletatik kendu dela egiaztatzeke.

Aipaturako loteko produktu mota hori kontsumitu baduzu eta goragaleak, gorakoak, beherakoa edo abdomeneko mina bezalako sintomatologiaren bat baduzu, osasun-zentro batera joatea gomendatzen da.

Etxean alerta honen eraginpean dauden produktuak dituzten pertsoneri, kontsumitzeari uko egitea eta erosketa-puntura itzultzea gomendatzen zaie.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abuztuaren 26a